

Surfaren eta ozeanoaren hiria. Steven Holl, Miarritze



Artikulu honetan Miarritzen eraikitze-bidean dagoen Steven Hollen "Surfaren eta Ozeanoaren Hiria" proiektua aztertu eta, bide batez, arkitekto horren proiektu-estrategiari buruz arituko gara.

Maidar Uriarte °

Gako-hitzak:
sustapen publikoa
tokia, ideia, forma, kontestualitatea,
fenomenoa, esperientzia, poesia

Arkitekto estatubatuarraren lanetan hain funtsezkoa den kontestuarekiko errespetuari eta harekin arkitekturak duen loturari buruz idatziko da. Azterketa egiteko ezinbestekoa delakoan gaude Hollen *Anchoring* liburu entzutetsua erreferentzi gisa erabiltzea.

Miarritzeko eraikin hau gune kultural gisa proposatzen du udalak. Batetik, hirian hain errotua dagoen surfaren kultura aditzera emateko, eta bestetik, sentsibilitate ekologikoa bultzatu nahian, ozeanoaren ikerketak zabaldu eta eraikin berean bildu nahi dira. Eraikinaren programa erakusketa-guneek, auditorium batek, denda batek, kafetegiak eta kanpoaldeko plaza, aterpe eta "skate-pool"ak osatzen dute.

Aztertuko dugun eraikina Biarritzeko Ilbarritz auzoan dago, itsaslabarra hareatza bilakatzen den gunean, auzoari izena ematen dion jauregi berezia dagoen muinoaren oinetan hain zuzen ere.

ANCHORING

80ko hamarkadaren amaieran argitaratutako liburua da *Anchoring*, Arkitekturaren eta tokiaren arteko uztarketaren aldeko aldarrikapen irmoa. Testuaren hasieran, argi eta garbi dio Hollek: "Arkitektura tokiari lotzen zaio nahi eta nahi ez" (1). Jarrera horren bidez, postmodernitateak aldarrikatzen zuen historizismotik aldendu zen, eta bestalde, teknologia digitaletan sortzen zuten lilurari kritika bat egin zion, nahigabe bederen.

*Anchoring*en esan bezala, eraikina toki baten esperientziari lotu behar zaio, tokiko FISIKOTASUNAK (ikusmirak, eguzkitapena, ibilbideak, irisgarritasuna eta behar funtzionalak) eraikinaren METAFISIKOTASUNA zehazten duelarik. Hau da, tokia, eraikinaren sorburua da, bertan daude arkitekturaren eta tokiaren arteko loturaren ebazpenaren osagai guztiak, asmoak eta xedeak. Hortaz, arkitektura bakoitzak kokapen zehatz eta bakarra izango du. Bestela esanda, toki bakoitzak arkitektura zehatz bat sorrarazten du.

Ez da proiektatzen eraikin bat toki jakin batean kokatzeko, harago doan *bedadura* bat izan behar den diseinua lantzen saiatu behar da arkitektoa. Kontestuaren erreplika soil bat baino gehiago, bertako ezaugarriren bat edo esanahia azpimarratu eta indartuko du arkitekturak.

Eraikinaren eta tokiaren artean lotura poetiko bat sortu behar da. Esan ei da Steven Holl poeta bat dela, eta poesia hori gauza soilen ezkutuko ezaugarriez ohartarazteko gaitasunean datza (2). Alegia, tokian tokiko berezitasun esanguratsu baina hain agerikoak ez diren horiek azaleratzeko ahalmena du arkitekto amerikarrak.

Argi eta garbi ez bada ere, *Anchoring*en aipatu zituen balizko estrategia batzuk, tokia sormen-iturri bezala erabiltzeko: kokapena ezagutu eta jasotako lehenengo hautemateen bilketa, hasierako burutazioen inguruan hausnarketa egin edo bertako topografia berriz pentsatuz.


Tokiaren azterketa izango da proiektuaren sorburua. Nolanahi ere, kritika gisa, esan beharra dago, kontestuaren analisi soilak ezin duela proiektuaren gorpuzkeraren osotasuna zehaztu.

IDEOLOGY VS IDEA. SOUS LE CIEL / SOUS L'OCEAN

Steven Hollen ustez, *tokiak ideia* bat sortzen du, kontestuan kontzeptuak ernaltzen dira. Hollen Kontestua, haren baldintza zehatzek, baita denbora, kultura, kokapen eta erabilera-programaren faktoreek ere osatzen dute. Kontzeptua, ideia sortzailea, izango den arkitekturaren egitura, proiektuaren muina da. *Idea* hau da "ordena", honek egituratuko du proiektu guztia, harexek emango dio zentzu orokorra proiektuari Steven Hollen ustez. Eraikineko elementu guztiak harilkatzen dituen kontzeptua da. Gure kasuan, Miarritzeko eraikinaren *ideia Sous le Ciel/Sous l'Océan* da, *Zerupean/Ozeanopean* alegia. Proiektatze-estrategia honetan, argi nabari da Louis I. Kahn arkitekto handiaren eragina. Hark hauxe esan zuen *kontzeptu/*

(1) S.HOLL. 1989. Egilearen itzulpena. "Architecture is bound to place".

(2) MARI. 2001



idea sortzaileari buruz: “Nago kontzeptua hazi bat landatzea bezalaxe dela, hortaz kontzeptuak —lortu nahi den emaitza alegia— zehatza behar du izan. Aurrera zoazela eta garapena gertatzen den heinean, forma bilakatu egingo da, eta hau onartu beharra dago, kontzeptua hain da sendoa, ezen ezinezkoa baita hau suntsitzea”. (3)

“Arkitektura-lan baten esentzia, kontzeptu zein formaren arteko lotura bizia da” (4) esango zuen Steven Hollek gerora. Kahnena hazi bezalaxe, forma, ideia bilakatzen den heinean eraldatuko da.

Kahnek kontzeptuaren beste izendapen bat zerabilen, “order” delakoa. Agindu, arau edota txukuntasun/ordena bezala itzul dezakegu. Kahnek “Order is” dioenenean, aurretik zegoen izaera bati egiten dio erreferentzia. Hollen kasuan, “order” hau, ideia izango da, eta berau kokapenean sortzen da, existitzen den eta zen zerbait.

Esan bezala, Miarritzen altxatzen ari den Surfaren eta Ozeanoaren Hiriaren ideia sortzailea, Zerupear/Ozeanopear da. Akuarelan ikusten den ebaketan sumatzen da forma zehatz bat, estalki itxura duen azalera ahur bat zerupean, eta eraikinaren barnealdea, erdi lurperatua, sabai ganbilaren azpian, ozeanopear. Hortaz, kontzeptuak berak, eraikinaren forma oinarritzkoa (azalera kurbatu bat) eta profil bateratua sortzen ditu.

SALK INSTITUTE VS SURFAREN ETA OZEANOAREN HIRIA

Anchoringen, toki eta arkitekturaren arteko lotura eredu bezala, Louis I. Kahn Salk Institute (La Jolla, California) esanguratsua aipatzen du Hollek. Han “egunaren une zehatz batean, erdiko patioa banatzen duen sakonuneko uretan islatzen den argiarekin bat egiten dute eguzki-izpiek ozeanoan islatzen direnean. Ozeanoa eta patioa fusionatu egiten dira eguzki-

(3) L. KAHN. 1997. Egilearen itzulpena ‘I believe the concept should be equal to that of planting a seed in which the concept—that is, the result you are going to get—should be quite clear. As you progress and develop, the form will be modified, and you should welcome this, because the concept will be so strong that you cannot destroy it’.

(4) S. HOLL. 1989. Egilearen itzulpena. ‘The essence of a work of architecture is an organic link between concept and form’.



Proiektuaren kokapena: eraikina tokiko 2 haitzekin harremanean.

izpiak uretan islatzean sortzen den fenomenoaren bitartez. Arkitektura eta natura lekuaren metafisikan biltzen dira.” (5)

Kahnek 1960ko hamarkadan eraikitako Salk Instituteak biologia-ikertzaileak eta haien laborategiak biltzen ditu plaza baten inguruan simetrikoki kokaturiko bi bolumenetan. Bertako ikertzaileen, eraikinaren erabiltzaileak hartara, **bilgune gisa proposatu zuen Kahnek hain ezaguna den patioa**. Antza, Hollek aipatzen duen fenomeno horren diseinuan Luis Barragan arkitekto mexikarrak izan zuen zeresanik. Horrek begetaziorik ez lukeela landatuko esan, eta Kahnek hala egin. “...plaza hau egin egiten baduzu, beste fatxada bat irabaziko duzu, zerura begira dagoen fatxada bat”. (6)


Alta, zita horrek atzera ekartzen gaitu Miarritzera eta Steven Hollek proposatutako **ideiaren** inspirazioa aurkitu dugulakoan gaude. Noski, tokian ernaldutako kontzeptua da, baina **Kahnena eraikina eredu izan duela baieztatzen ausartuko gara**. Aipatuko dugu era berean, arinkeria bada ere, bi kokapenen arteko parekotasunak (labarra, dentsitate baxua, inguruko erabilerak baita orientazioa ere) nabarmenak direla.

Steven Holl Architects-en bidez lortutako proiektuaren memorian dakar, zerupean dagoen azalera ahurra, eraikinaren estalki izateaz gain plaza eta bilgune izateko pentsatua dagoela, **surflarien bilgune izan nahi duen espazio bat sortuz**. Horra, Salk Instituterekin lehen antzekotasuna. Bigarren antzekotasuna, jada aipatu dugu. Hau da, **zerupean kokatua** dela Hollen enparantza, Kahnena bezalaxe. Fatxada bat gehiago proiektatu du Hollek, ingurune naturalarekin harremanetan dagoena, bi kasuetan zeruarekin alde batetik eta bestetik, Miarritzen, itsasoarekin.

Ozeanoarekin duen lotura aipatu da lehenago Kahnena kasuan. Hollek lotura ardatzaren bidez ere gorpuzten du, Kaliforniakoaren

(5) S. HOLL. 1989. Egilearen itzulpena. ‘...there is a time of the day when the sun, reflecting on the ocean, merges with light reflecting on the rivulet of water in the trough bisecting the central court. Ocean and courtyard are fused by the phenomenon of sunlight reflecting on water. Architecture and nature are joined in a metaphysics of place’.



(6) L. BARRAGAN. 1997



Plaza eta sarrera oinplanoa



Mezzanine oinplanoa



zurruntasunik ez badu ere, horizontearen presentzia azpimarratuz. Horretaz gain, Miarritzen SIMETRIA bat sortu nahi duela dirudi, Ilbarrizteko itsasertzean dauden bi haitz soilak irudikatzen dituzten bi bolumen agertzen baitira *Sous le Ciel* plazan, irudietan ikusten den bezalaxe.

Miarrizteko kontestua Hollentzako eraikinaren programak (“[...]museo eta erakusketa-gune bat sortzeko asmoa zeukan. Itsasoa eta surfak gure aisialdian, zientzian zein ekologian duten eragin zientifiko eta hezitzailearen alorrak aztertzeko xedearekin.” (7)), kulturak (opor-lekua, hondartzak, surf-larien jomuga, ingurumenarekiko sentsibiltatea...) eta tokiak (fisikoki) osatzen dute.

Beraz, surf-larien bilgune (aterpea eguraldi txarra dabilenerako, skatean ibiltzeko “pool” bat ere baditu proiektuak), hauen kirolaren erakustoki eta kirol horren medioa den ozeanoaren interpretaziorako eraikin bat pentsatzen da.

Ozeanoa da beraz eraikin honen *tokia*, eta harekin lotzeko, maila poetiko batean bederen, *simetria eta islada* erabili ditu Hollek proiektua diseinatzean. Ozeanoak bezalaxe, eraikinak, bi eremu ditu, zerupean dagoena eta itsasopean, uretan aurkitzen dena. Bi eremu horiek banatzen dituen azalera/plazak horizonteraino luzatzeko nahia erakusten du, eta itsasoan bezalaxe, surf-larien toki berezi bihurtu. Horizontean bat egiten dute zeruak eta itsasoak.

Gainera, tokikotasuna azpimarratzeko, bertako itsasertzean

(7) S.HOLL. 2009. Proiektuaren memoriatik ateratako pasartea.

aurretik zeuden bi harkaitzen simalak eraikiko ditu, plaza gainean. Bestalde eraikinaren profileen ageri den ahur/ganbil joko horrek, olatuak gogora ekartzeko balio lezake? Formalegia agian?

Steven Hollen lanen funtsa da ideologia orokor bat erabili beharrean, *ideia zehatz batetik abiatzea*. Horrela, tokian tokiko proiektuak pentsatzen dira eta emaitzak beti izango dira ezberdinak. “From specific to universal” da berak proposatzen duena, alegia zehaztasunak erabiliz, balio, egia, izate unibertsalak adieraztea, eta ez alderantziz.


IDEA & PHENOMENA

Orain arte aipatu dugun guztiak kanpoko itxurari egiten dio erreferentzia, eraikinaren formari, kanpotiko hautematei. *Anchoringen* hariari helduaz, bertan Hollek balio erantsi bat ematen dio proiektu-estrategiari, hau da, *barne-pertzepzioa*.

“Burutazio arkitektonikoa, *ideia* batek hastapena ematen dion eta fenomeno lantzen duen prozesu bat da. Egiteak (artifizialitateak eraikiz) ohartarazten gaitu *ideia*, *fenomenora* hedatzen den hazi bat (ernalketa) besterik ez dela”.(8)

Kanpoko hautematea *ideiak* sortzen baldin badu ere, barneko hautematea, berriz, *fenomenoak*. Bi hautemate horiek eraikinaren fisikotasunean elkarrekin lotzen dira. (9). Beraz, *arkitekturak beharrezkoa du barne-pertzepzioa*, subjektibotasuna alegia, existitzeko. Esperientzia fenomenologikoaz ari da hemen, eta

(8) S. HOLL. 1989. Egilearen itzulpena. “Architectural thought is the working through of phenomena initiated by idea. By making (building artificiality) we realize idea is only a seed (conception) for extension in phenomena”.



Irudiak: Steven Holl architects

joera horren baieztapen nagusia litzateke inguratzen gaituzten gauzen funtsa esperientzia fisikoaren bidez ulertzea.

Horrela, Hollek erabiltzailearen garrantzia nabarmenduko du. Erabiltzaileak, *erabiltzaiaz* gain, eraikinaren esperientzia bat biziko du. Materialen testurek, gardentasunak, argiaren sarrerak edo argiztapenik ezak norbanakoaren zentzuekin lotzen dira eta hala hautemate ezberdinak sortuko dira. **Haptizitatearen erreinu** da hau, begi-bistako hautemate maila baino harago dauden pertzepzioen eremua.

Hortaz, materialen aukeraketa eta haien arteko junturak eta xehetasunak bereziki zaindu ditu bere proiektuetan Steven Hollek. Ozeano eta Surfaren Hirian erabiltzen diren materialak hurrengoak dira: plazan, zoladura galtzadarrak (adokin) txikiekien osatzen da, tartetako hondarretan begetazioa agertzea ahalmentzen delarik. Bestalde, landaredi *naturala* zein belarra aldatuko dira. Fatxadetan, beira isolatuak, ikusmirerarako beirateak zein kofratze-oholen testura duen hormigoi zuria tartekatzen dira. Barnealdeko azalera eskaiola zuriz estalita daude (bideo-proiekzioen onerako). Zuritasun hori zoruan kokatuko den zurezko tarimarekin konbinatuko da, horrek akustika samurtuko baitu.

Eraikinaren azalera ganbil/ahurraren jokoek zenbait argi-sarrerak ahalbidetzen ditu, aipatu hautemate-esperientzia aberaste aldera.

(9) S. HOLL, 1989. Egilearen itzulpena. "If we consider the order (the idea) to be the outer perception and the phenomena (the experience) to be the inner perception, then in a physical construction, outer perception and inner perception are intertwined".

Bertaratu gara eraikitze-lanen gunera eta oraindik zaila da arkitektoak diseinatu duen osotasun hori hautematea. *Ideia*ren forma erraz atzematen da, ordea, baina badirudi, lursailaren ezaugarri zehatzek (maldak zein mekanikoak) bolumenaren altzatzeko bat eragin dutela...Eraikinak *lepoa* luzatu behar izan ote du itsasoa plazarekin lerrokatzeko?

Galdera batzuk bururatzen dira txangoaren ondoren:

Steven Hollek hainbeste aldarrikatzen duen tokiaren eta eraikinaren arteko lotura ageri ote da Miarritzen? Nolatan? Lotura hori kontzeptu objektiboa ote da? Ala alderantziz, poesiaren hautematea beharrezkoa da ulertzeko? Ez al genuke denok lotura hori bat-batean sentitu behar?

Hautemango ote ditu hara doanak Hollek zaindu eta ahalbidetu nahi dituen esperientzia fenomenologiko horiek?

Botako ote du aingura arkitektura honek Ilbarritzen?

* Maider Uriarte arkitektoa da eta UPV/EHUren Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren 2009ko deialdiko doktoratu aurreko ikerketa-beka onuraduna.



Maider Uriarte